


# STM

San Telmo Museoa

Zuloaga plaza 1  
20003 Donostia – San Sebastián  
Telefonoa: 943 48 15 80  
santelmo@donostia.org  
[www.santelmomuseoa.com](http://www.santelmomuseoa.com)

San Telmo Museoa 

## MODERNITATEAREN HASIERA IBILBIDE OROKORRA

**Irakasleentzako koaderno**  
DBHko bigarren zikloko ikasleentzat



## SARRERA

Proposatzen den ibilbidea mistoa da; hau da, azalpenak ematen dituen bisitaldi gidatuarekin batera, ikasleek ere, lau taldetan banatuta, fixetan eskatutako informazioa bilatu behar dute.

Talde bakoitzak gai bana jorratuko du, eta bukaeran, behin denak hezkuntza-tailerrean bilduta, talde bakoitzak besteei emango die egindako lanaren berri. Museoaren ardatzak dira jorratu beharreko gaiak: iraganera begira, etorkizunari heltzeko erronkak azaltzea da asmoa. Izan ere, San Telmo Gizarte Museo bat da.

Hona hemen jorratuko diren gaiak:

1. **GENERO eta GIZA ESKUBIDEEN** aldetiko begirada historikoa
2. **LURRALDE TASUNAREN** aldetiko begirada historikoa
3. **IRAUNKORTASUNAREN** aldetiko begirada historikoa
4. **KULTURARTEKOTASUNAREN** aldetiko begirada historikoa

Jakina, bisitaldi gidatua kontratatu beharrean irakasleak bisitaldia bere kabuz egin nahi badu, hemen agertzen diren bisitaldi gidatuarekiko erreferentziak haren gain geratuko dira. Hartara, hoberena museoa alde zurretik bisitatzea da. Dena den, hark egin nahi lituzkeen azalpenez aparte eta haien lagungarri, koaderno honetako fixetan erantzunetatik harago doazen azalpenak ere gehitu dira. Azalpen horietako datuak edota gogoetak ikasleei helarazi ala ez, eta, egitekotan, nola, irakaslearen gain geratzen da, bera baita taldea hobekien ezagutzen duena. Halaber, irakaslearen esku geratzen da bisitaren aurretik edo ondoren ikastetxean jorra daitezkeen gaien osagarri gisa erabiltzea edo ez.

*Jarduera osoa egiteko, ordu eta erdi kalkulatzen da.*





# MODERNITATEAREN HASIERA

## Ibilbide orokorra

*Talde osoak elkarrekin egin beharreko partea:*

### Bisitaren hasiera:

Ongietorria, Museoaren aurkezpena eta taldeka jorratu beharreko gaien eta materialen banaketa (kontratutako bisitaldi gidatuen kasuan): talde bakoitzak dagokion lan-fitxa jasoko du; harekin batera uzten zaizkien paper-euskarria eta boligrafoak bisitaren bukaeran itzuli behar dira.

### Eliza:

Ikus-entzunezkoa (13 min.)

### “Aztarnak oroimenean” erakustaretoa, beheko klaustroan:

Historiaurretik XVIII. mendera arteko bidaia: ikasleei beheko klaustroko erakustaretoa hau arinki ezagutzeko parada emango zaie, gidariaren laguntzaz.

(Irakasleak bere kabuz egitea erabakitzen badu, haren esku geratzen da pasarte hau).

Gaietan sakondu gabe ere, museo batean “besterik gabe” (lan zehatz bat egin beharrik gabe) paseatu eta gozatzeko aukera emateaz gain, gure gaurko bizimoduaren urrutiko jatorrien berri izan dezakete. Era berean, museo baten mamia ez dela bisitaldi bakar batean agortzen ere uler dezakete.

### Beheko klaustroan:

“Aztarnak oroimenean” aretoaren aldean, ondareari buruzko sentiberatasuna areagotzeko jarduerak; besteak beste, ukitzea bezain gauza xumea ondarearen iraupenerako uste baino askoz kaltegarriago dela adierazteko ariketak proposatuko zaizkie.

### Goiko solairuko ariketak:

Fitxetan galdetutako ariketak egitearren, gela lau taldetan banatu eta bakoitzari dagokion gaiaren arabera, erantzuteko informazioa bilatu behar dute (gogoetak haien kabuz egiteko eskatzen zaie), gehienbat klaustroan bertan, baina batzuetan baita aldameneko aretoetan ere.



# MODERNITATEAREN HASIERA

## Ibilbide orokorra

### ***Ikasleek egin beharreko ariketak, lau azpitaldetan gaika banatuta:***

Esan bezala, informazioa bilatzeko eta gogoeta egiteko lana lau taldetan banatzen da, gai bana jorra dezaten. Halaber, gai bakoitzak hiruna ariketa dakartza.

Fitxetan agertzen den numerazioa praktikotasunarengatik erabiltzen da: lehena, bigarrena... esateak ez dakar lehentasunik edo ordenarik, taldeen joan-etorriak eta ariketak kontrolatzeko erraztasuna baizik.

Taldekako jardunaldia burutzeko, ondarearen kontserbazioari buruzko ariketa errazak eta era berean jakingarriak gauzatzeko proposatzen zaizkie.

Ariketak eginda, talde osoa berriro batu eta denek elkarrekin jorratuko dituzte gaiak tailerrean: talde bakoitzak egindako hiru ariketatik bakarra aurkeztuko du, hain zuzen egindakoen artean interesgarriena iruditu zaiona.

Ibilbide bera egiten duten bi ikastalde egonez gero, bisitaren ordena (hala nola, goiko klaustroan hasita) alda daiteke. Halaber, ikasgela bat Hezkuntza Tailerrean ez baina beste nonbait bil daiteke, adibidez, beheko klaustroan.

***OHARRA: Irakasleentzako koaderno honetan, ariketen erantzunak eta azalpenak beltzago eta etzanean daude.***


Datorren orrialdean goiko solairuaren planoa agertzen da eta, bertan seinalaturik, **ariketa bakoitza egiteko kokalekua:**



# MODERNITATEAREN HASIERA

Ibilbide orokorra

## Goiko solairua



## 1. TALDEA:

### GENERO ETA GIZA ESKUBIDEEN ALDETIKO BEGIRADA HISTORIKOA



#### 1.1. ARIKETA



Goiko klaustroan, “Jendartean bizitzea” aldean.



- Karlistenak, nolako gerrak izan ziren?
  - **Gerra zibilak**
  - Espainiarren eta frantziarren arteko gerrak
  - Ez ziren gerrak izan

*Europan Frantziako Iraultzaz geroztik eta Ameriketako Estatu Batuen independentziaren ondoren hasitako erregimen aldaketa ideologikoa izan zen gehienbat (politika ez ezik, gizartea eta ekonomia ulertzeko era zen heinean), eta arazo dinastikoak edo lurraldetasunezkoak talka ideologikoen baitan ulertu behar dira.*



#### 1.2. ARIKETA



Goiko solairuan, “Industrializazioa, aldaketaren eragilea” erakustaretokeko paneletan edo areto bereko sarreran dagoen ikus-entzunezkoan.

Frankismo garaian, emakumeek senarraren baimena behar izaten zuten, besteak beste, etxetik kanpo lan egin ahal izateko, bakarrik bidaiatzeko, baita banku batean **mailegu bat eskatzeko edo kontu korrante bat**..... izateko ere.

*Errepublikara garaian, langileek oro har eta emakumeek bereziki eskuratutako eskubideak lazki murriztu zituen frankismoak. Emakumeak etxe-familiaren esparrura mugatu nahian, haien askatasun ekonomikoa eta beraz beren burua beren gisa gobernatzeko baliabideak mugatu egin ziren.*





### 1.3. ARIKETA



Goiko klaustro ondoko Arte Ederretako "Euskal Artearen 100 urte" aretoan.



Koadro batean Donostiako Misericordia etxeko jangela ikusten da duela ehun urte: mojek zerbitzatuta, eskaleak jaten ari dira.

- Gaur egun munduan goseak oraindik jendea hiltzen duela gauza jakina da; baina... gure munduan ere bai?
- Gure inguruan halako jangelak badaudela uste duzue? Zuen herrian bertan?
- Zergatik gertatzen da halakorik?

**Informazioa bilatzeko ez baina gogoeta kitzikatzeko ariketa: gure eredu sozio-ekonomikoak aurrerapen handiak ekarri ditu; baina erronka batzuek bere horretan dira... edo areagotu dira aspaldi honetan, hala nola pobreziaren feminizazioa, etxegabeen hedapena, etorkinen zailtasunak ekonomikoki eta sozialki integratzeko, eta abar.**





## 2. TALDEA:

### LURRALDETASUNAREN ALDETIKO BEGIRADA HISTORIKOA



#### 2.1. ARIKETA



Goiko klaustroan, "Hirien hazkundea eta modernizazioa" aldean.

1863an harresiak eraisten hasi arte, Donostia gaur egun Alde Zaharra diogun barrutira mugatua zegoen; handik kanpo eraikinak bazeuden, baina hiritartu gabe.

- Bila ezazue Donostiako lehen Zabalgunearen planoak. Zein garraio bide, orduan berritzaile, agertzen zen ibaiaren beste aldean?

Pista bat: oso hurbil dituzue garraio bide berriari buruzko objektuak.

**Trenbidea da: Madril-Hendaia (Pariserako lotura egiteko) burdinbidea 1864an inauguratu zen.**

**Zabalpen urbanistikoak eredu ekonomiko eta demografiko berri batekin batera gertatu zirela iradokitzeko ariketa: 1180tik 1854 arte, Donostia zen Gipuzkoako hiri nagusia, baina ofizialki ez zegoen hiribururik, aurreko hamarkadan Tolosaren izendapenez gain. Hala ere, hiriburuaren ofizialtasun hutsa baino inportanteago izan zen harresien eraistea, zeren eta 150 urte eskasetan Donostian hiritartutako azalera izugarri handitu baita: bider 3.000!**



#### 2.2. ARIKETA



Goiko klaustroan, "Eskubideen lorpena" aldean.



Lehendabiziko Euskal Autonomia Estatutua Gerra Zibilean onetsi zen. Frankismoak, beste eskubideekin batera, estatutu hura bertan behera utzi zuen.

- Nola zuen izena lehendabiziko lehendakariak?

**Jose Antonio Agirre**

**Gaur egungo autonomia erkidegoaren jatorria dago Errepublikara garaian, gerra zibila hasia zela, onetsi eta abiarazitako estatutua. Beste hainbat eskubide bezala, frankismoak bertan behera utzi zuen eta haren aldekoek errepresioa nozitu zuten. Agirre, adibidez, erbestean hil zen.**







### 2.3. ARIKETA



Goiko klaustroan, "Belaunaldi zaratatsua" aldean.

- Bila ezazue euskararen aldeko mugimendua sinbolizatzen duen objektu bat, oraindik orain bi urtean behin Euskal Herriko kaleetan eskuz esku ikus daitekeena.

***Korrikako lekukoa, Remigio Mendiburu eskultoreak egindakoa (jatorrizkoa: orain erreprodukzioak erabiltzen dira).***

***Frankismoaren azken urteetan eta ondoren, euskal kulturak pizkunde bat ezagutu zuen, eta ahalegin bereziak egin ziren euskarak gizartean indarra har zezan: euskara batua arautzea, hezkuntza sisteman txertatu eta zabaltzea, helduen alfabetatzea edo euskalduntzea, ofizialtzea zenbait lurraldetan eta besteetan ofizialtzeko eskatzea...***

***Edukiaz aparte, halako ariketak adierazi nahi die ikasleei gizarte-museo bat ez dela mugatzen iraganeko objektuak biltzera, eta gauza biziak ere ondareztat har daitezkeela, gizartearen ezaugarri bati buruz informazioa emateko eta beraz gogoeta egiteko balio duten heinean.***



### 3. TALDEA:

#### IRAUNKORTASUNAREN ALDETIKO BEGIRADA HISTORIKOA



##### 3.1. ARIKETA



Goiko solairuan, "Tradizioak bizirik dirau" erakustaretoetan, elizako koru gainean.

- Lot ezazue objektu bakoitza dagokion izenarekin, eta gehitu bakoitzaren lehengaia.



*Esnarria: harria*



*Garranga: burdina*



*Kutxarroa: adarra*



*Sunpriñua: hurritz azala*



*Malatsa: zura*



*Zorroa: larrua*



*Galtzerdia: artilea*

Malatsa | Sunprinua | Galtzerdia | Garranga | Esnarria | Kutxarroa | Zorroa

- Lehengai hauetarik, zein da artzainek (edo baserritarrek, edo ikazkinek) zuzenean naturatik eskura ez zuten bakarra?

***Burdina***



# MODERNITATEAREN HASIERA

## Ibilbide orokorra

*Baseri mundua inoiz buruaskia izan ez bada ere, gertueneko baliabideak erabiltzeko joera zegoen, zenbat eta urrutiago garestiago izaten zen eta. Industrializazioak eta ekonomia monetarioak produktu eta lanbideen espezializaziora jotzen du, soldata baten trukean; diruz erosten ditugu eguneroko bizimoduan behar ditugun gaiak, jada eginak (janaria bera ere, gero eta gehiago). Ekonomia globalizatuak areagotu egin du joera hau: lortutako erosotasunaren eta ondasun ugarien ordainetan, desorekak eta dependentziak ere sortu dira.*



### 3.2. ARIKETA



Goiko solairuan, “Industrializazioa, aldaketaren eragilea” erakustaretoan.



- Gipuzkoan, eta batez ere Bizkaian, erromatarren aurreko garaian jada ustiatutako lehengai batean oinarritu zen industrializazioa. Zein zen lehengai hura?
  - Harrikatza
  - **Burdina**
  - Beruna

*Burdina izan zen. Bizkaiko industrializazioa ulertzeko, kontuan izan behar da burdin mearen kalitatea, Ingalaterran garatutako Bessemer labeen sistamarako oso aproposa. Kostaldetik gertu, harrikatz ingelesa inportatu eta ontziolen industria ere garatu zen. Baliabidearen agortzeak lurralde osoko desindustrializazioa eta gainbehera sozioekonomikoa erakarri zuen.*



# MODERNITATEAREN HASIERA

## Ibilbide orokorra



### 3.3. ARIKETA



Goiko klaustroan, "Belaunaldi zaratatsua" aldean.

- Noiz iritsi zen lehen lehendabiziko Seat 600 delakoa Euskal Herrira?

*1956an*

- Gaur egun, zer du alde eta zer kontra familia bakoitzak gutxienez ibilgailu bana edukitzeak? Erantzunak argudiatu.

#### ALDE:

*Adibidez (bakoitzak nahi duena jar dezala):*

- *Erosotasuna*
- *Mugitzeko ahalmen handiagoa*
- *Jabe izatearen sentsazioa*
- *Estatus sozio-ekonomikoaren adierazlea*
- *Denbora aurrezteak...*

#### KONTRA:

*Adibidez (bakoitzak nahi duena jar dezala):*

- *Kostu ekonomikoa*
- *Kostu energetikoa*
- *Kutsadura*
- *Aparkatzeko edota zirkulatzeko zailtasunak*
- *Istripuak...*

*Beharbada eztabaida ere pitz daiteke: jabe izatearen sentsazioa ona al da, esaterako, estatus sozio-ekonomiko bat sustatzeko balio badu? Autoa: gastua ala inbertsioa? Kutsaduraz aparte, iraunkortasun aldetik eutsi dakioke etengabeko motor industriari? Kontsumismoaren ajeak...*



## 4. TALDEA:

### KULTURARTEKOTASUNAREN ALDETIKO BEGIRADA HISTORIKOA



#### 4.1. ARIKETA



Goiko klaustroan eta ondoko "Tradizioak bizirik dirau" erakustaretoetako batean.



- Bila itzazue euskal kirol hauek eta jatorriaren arabera sailka itzazue:

Hipika | Harri-jasotzea | Aizkolariak | Boxeoa | Futbola | Traineru estropadak | Tenisa | Palanka jaurtiketa

#### Jatorriz bertakoa

*Harri-jasotzea*

*Aizkolariak*

*Traineru estropadak*

*Palanka jaurtiketa*

#### Jatorriz kanpokoa

*Hipika*

*Boxeoa*

*Futbola*

*Tenisa*

- Seinala ezazue beste euskal kirol bat, kanpotar jatorrikoa izan arren geure-geurea dena eta era berean nazioartean ere oihartzun handia duena:

*Euskal pilota, hainbat modalitatetan: esku hutsean, pala, errebotea, zesta punta, erremontea...*

*Bertako/kanpoko kontzeptuen arteko mugak definitu gabeak eta etengabeko eboluzioan daudela adierazteko eta hartaz gogoeta egiteko ariketa: adibidez, zertan da gaur egun "gureago" palanka futbola baino? Manilako Jai Alai toponimoa, pilota-lekura lotua, euskal toponimoa al da?*





### 4.2. ARIKETA



Arte Ederren goiko aretoan, "Bilduma Historikoa" sailean.

- Bila ezazue euskal jatorriko pintore baten erretratuak, denak emakumeenak, eta aipatu, gutxienez, haien janzkerengatik bereiz daitezkeen hiru herrialde.

*Sardinia, Holanda eta Marokoko emakumezkoak dira nabarmenenak, janzkerengatik.*

*Egilea Antonio Ortiz Echagüe da, Espainiako Guadalajaran jaio eta Argentinan hil zena. Arabar jatorriko familiak Donostian udak ematen zituelako, azkenean ondorengoek dohaintzan eman dizkiote koadro hauek San Telmo Museoari. Egilearen bidaia ugarien lekuko dira koadrook. Haietan, gaietara ez ezik, tokian tokiko korrante piktorikoen argi eta estiloetara moldatzeko gaitasun aparta erakusten zuen.*



# MODERNITATEAREN HASIERA

## Ibilbide orokorra



### 4.3. ARIKETA



Goiko klaustroan, “Belaunaldi zaratatsua” aldeko euskarari buruzko modulu elkarreagilean, Solasean jolasean izeneko atalean.



- Zuek zer uste duzue? Honako hitz hauek euskal hitzak al dira?

**Akelarre:**

**Alboka:**

**Anorak:**

**Dardarina:**

**Kaiku:**

**Akelarre:** (euskarazko aker eta larre-tik, baina espainiar inkisidoreek euskal toponimo batetik egindako interpretazioa, omen, euskal mitologia herrikoian akerra ez zelako deabruarekin lotzen, eta bai, ordea, erlijio katolikoaren pentsamoldean)

**Alboka:** (arabiera: al-buk; gaztelaniaz albugue da, ia galdua dagoen musika tresna)

**Anorak:** (inuit: bertakoek ez dute eskimal hitza erabiltzen, iraingarri zaie)

**Dardarina:** (euskaratik eratorritako neologismo medikoa, Parkinson gaixotasunari lotua, haren ezaugarri bat dardara delako)

**Kaiku:** (“ontzi” esanahia duen latinezko caucus hitzetik eratorria)

Denak dira euskarazkoak, euskaraz erabiltzen direlako; beste kontu bat da hitzen jatorria: hizkuntzen eta oro har kulturen arteko harremanak etengabeko joan-etorrian daudela adierazteko ariketa.





### ONDAREA KONTSERBATZEKO GARRANTZIAZ SENTIBERATASUNA AREAGOTZEKO ARIKETAK:

***Museoen zeregina ondarea biltzea, behar bezala gordetzea eta zabaltzea da; ondarea zaintzea, ordea, denon ardura da.***

- San Telmoko ia bostehun urte ditu. Orain guztiz zaharberritua dago. Baina, iraungo badu, kontuz ibili behar da. Horregatik ezin dira gauzak ukitu, ezta harriak ere, gogor gogorak izan arren.

Hona hemen hareharri bat, San Telmoko harriak bezalakoa. ***Igurtzi*** eskuz:

Zer gertatzen da? ***Hondar aleak erauzten zaizkiola.***

- Papera asmatu ez balitz, ez genuke gure historiaz ia ezer ere jakingo. Baina papera oso delikatua da, ukitu gabe ere hondatu egiten da eta.

***Konparatu*** orri bat, ilunpean kontserbatutako aldea eta argitan gordetakoa.

Zein orrialde kontserbatu da hobeto? ***Argitu gabea.***

- Zertarako balio dute museoetako gauzek, ezin badira erabili?

Bada... hain zuzen, denboran zehar iraun dezaten! Eta hala ere, lanak! Burdina bera, oso gogorra izanagatik ere, hondatzen da kanpoan utzita.

Ezetz asmatu zein den burdinaren ***etsairik okerrenetako bat!***

- Begiak: ikusteko, argia behar dutelako.
- ***Hatz-mamiak, haiekin laztantzen dugulako.***
- Ahotsa, hitz egiten dugunean beti eskapatzen zaigulako tua, tanta mikroskopikoak badira ere.

***Izerdia (eta hatzei izerdia darie, etengabe) hezea eta gazia da, eta elementu hauek biek metalak herdoiltzen dituzte.***

- Giroa hezeegia edo lehorregia bada, edo hotzegia edo beroegia, landare- eta abere-zuntzeko materialak narriatu egiten dira.

Baina okerrena aldaketak dira, horrela hondatzen dira gehien egurra, larrua, oihalak (artilea, lihoa, kotoia...), eta abar. ***Konparatu*** material berberak: zeintzuk daude hobeto eta zeintzuk okerrago?

***Larrua, oihala eta egurra oso heze, oso lehor eta behar bezala: hiruna puska.***





# MODERNITATEAREN HASIERA

## Ibilbide orokorra

donostia**kultura**.com



Donostiako Udala  
Ayuntamiento de San Sebastián



DONOSTIA 2016  
SAN SEBASTIAN

Erakunde laguntzaileak:

San Telmo Museoa



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputacion Foral de Gipuzkoa

Patrono pribatuak:



EL DIARIO VASCO



berria<sup>ntv</sup>

GARA<sup>ntv</sup>

naiz:

